

## **Banaketa eta komunikazio kanalak:**

Gure proiektua aplikazio bat denez, bezeroarengana hurbiltzeko aplikazioa bera erabiliko dugu, hau da, gure kanal propioa. Aplikazioaren barnean online denda ezarriko dugu non gure bezeroak guk eskaintzen ditugun produktuak erosi baita alokatu dezaketen.

Horretaz aparte, elkartuak izango ditugun kanalak ere bai erabiliko ditugu. Alokaturiko diren futbol zelaien enpresak lagunduko digute ditugun produktuak banatzen eta patrozinatzen. Beraz, enpresa horien laguntzari esker askoz ere errazago izango dugu bezeroarekin harremana, baita beste enpresekin ere bai.

Dauzkagun kanal motak ikusita bi motatakoak izanen ditugu, zuzena, online dendaren kasuan eta zeharkakoa, beste enpresekin elkartzean. Bakoitzak bere abantailak eta desabantailak ditu, zuzenekoan adibidez, etekin handiagoa aterako dugu saltzen dugun produktu bakoitzero baina ez ditugu bezero asko eskuratuko, zeharkakoan ordea, nahiz eta etekin gutxiago atera (azkenean, beste enpresekin partekatu beharko dugulako) bezero gehiagotara ailegatu ahalko gara. Gainera kanal zuzenean guk egin beharko dugu lan guztia eta zeharkakoan aldiz, elkartuta dugun enpresak lagunduko digu produktua banatzen eta saltzen.

Azkenean, bezeroari ailegatzeko modu desberdinak ditugu, beraz, bezero kantitate handi bat erakartzeko kapazitatea izango dugu.